

...eta

Kitto!

953 zkio.
2015-XII-4



Durangon DA! hitzordua

R.F.S. N° 48970 I.L.G.



2015eko bildumak
marka guztietan

ZURE BIGARREN BETAURREKO PROGRESIBOAK

OPARI VARILUX®

ERABATEKO BABESA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2

Tel.: 943 20 05 22

EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

GABONEK IPUR SAGAROTEGIAN SARIA DAUKATE

**RELAX-ASTEBURU BAT IRABAZ EZAZU ZURE
KAFEAREKIN**

Saria: 2 lagunentzako gaua eta talasoterapia
zirkuitua "La Perla" bainuetxean

**HARAGIA TXINGARRETAN
SAGAROTEGI MENUAK
IPUR SUPER TXAPELAK
SEKULAKO KAFAA**



ipur 

IPUR SAGAROTEGIA

Otaola Hiribidea,5. (Ipuruako Eroskiren ondoan). 20600 Eibar



bildu ERABAKIra

eman botoa
ehbildu

ABENDUAK 6 BILBO
MANIFESTAZIOA
12:00 ELIPTIKA PLAZA >> ARRIAGA

ABENDUAK 9 EIBAR
EKITALDIA
19:00 PORTALEAN
Marian Beitialarrangoitia
Gotzon Elizburu
eta Igone Lamarain



ASTEAN ESANAK

"Garai batean, bertsolariak zentsura soziala egiten zuten. Hortik, zerbait nabarmena egin ezker, adibidez modu ez ohikoan jantzi ezker, segituan entzun beharko zenuela 'bertsoak aterako dizkizute' eta halakoak. Oreka soziala kolokan jartzen zuen zerbait gertatu ezker, zentsura soziala zetorren segidan. Adibidez, agure bat neska gazte batekin ezkontzen bazen, hurrengo goizean atarian zeuzkan zintzarrotsak. Hor zigor bat zegoen. Eta elizak ere zentsura soziala ezartzen zuen. Eta bertsolariak zer ziren? Bada, zentsura horren egileak, zentsura gauzatzen zutenak"

(BERNARDO ATXAGA, IDAZLEA)

"Pilota modernizatuko nuke. Hirugarren epaileen mahaiari monitorea jarriko nuke, epaileak kontsultatzeko barruan edo kanpoan izan den; Belatz Begira ez dago zertan iritsi. Pilotalekuean gainera dirua jokatzeko da. Ez al zaio errespetu hori zor pilotariari, ikusleari, apostulariari? Paretetako publizitatea ere kenduko nuke, badaude-eta beste modu batzuk. Kamera batek traba egiten du kontraktantxan, baina pilotak publizitatea ukitzen badu, ez dira kezkatzen. Publizitatea diru iturri da, baina frontisean ez bada jartzen, zergatik ezker paretean bai?"

(JOXERRA GARZIA, IDAZLEA)

"Umeak ulertu dira kasik zuhaitzak balira bezala. Espazio txiki bat uzten zaie kalean eta, gainera, mugatua. Hiriak produkzio ikuspegi batekin pentsatu dira, eta ez zaintza ikuspegi batetik. Erabaki horrekin badira bereziki kaltetuak izan diren kolektiboak, tartean haurrak. Pertsonak erabakien erdigunean jarri izan balituzte, ziur beste hiri eta herri batzuk aterako lirakeela"

(KOLDO TELLERIA, ARKITEKTOA)

Gure aurrekoak erabiltzen zuten euskeraz

KOSKARA EROSI.- Erosten den uanean barik, geroago ordaindu. Epetan erosi. Esaldi hau, sasoi batean saltzaileak, erosleak zerbait ordaindu gabe eraman zuela gogoratzeke, koska batean egiten zuten marrik dator. "Koskakua esaten jakon taberna hari, ardua eraten zalako han koskara".

KOSKONDU.- Koskortu, hazi, handia egin. Umeekin erabiltzen da. "Zuen granujia be majo koskondu dok".

KOSKOR.- Gorputzean sortzen den handiunea edo gogorrunea. Gaztelarazko 'chichón, quiste'. "Koskorrak urten detsa bekokixan".

Ogi-barraren punta. Ogi-mutxikina. "Ogi koskorra esnetan beratuta".

Txikia. "Gure mutil koskorrak be edarra egin dau: harri-koskor baten trabauta jausi eta besua hautsi dau".

eskutitzak

XIII. TXISTORRA EGUNEKO ZOKKETAREN ZENBAKI SARITUAK

Eibarko Txirriindulari Elkarteak XIII. Txistorra Egunean egin zuen zokketan, hauek izan dira saritutako zenbakiak: Lehen Sari nagusia, 1.264; Tar-teko Helmugak 394, 867, 882, 1.066 eta 1.086; "Farolillo gorriak" 13, 35, 58, 97, 211, 240, 241, 327, 340, 344, 350, 363, 443, 497, 505, 509, 544, 594, 613, 633, 662, 686, 777, 819, 836, 862, 866, 881, 893, 899, 958, 1.005, 1.133, 1.144, 1.167, 1.182, 1.255, 1.258, 1.574 eta 1.579; Sari bereziak 433 (Eibar KE), 21 (Erreala), 128 (Athletic) eta 936 (Astelena); 48 (le-

hen erreserba) eta 1.262 (bigarren erreserba). Sariak kontsultatzeko www.clubciclistaeibarres.org helbidean begiratu. Sariak jasotzeko egunak: abenduaren 4, 9, 10, 11 eta 14a, 19:00etatik 20:00-etara, Eibarko Txirriindulari Elkartearen (Pagaegi, 3). Ordutegi horren barruan joaterik ez dutenek, cce@clubciclistaeibarres.org helbidera emaila idatzi edo deitu 943203480 telefonora, jasotzera joateko ordutegian.

EIBARKO TXIRRIINDULARI ELKARTEA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



Gipuzkoa
BERRIA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Argixak ixotziarekin batera ekin detsez Gaboneri

Aurreko astian, eguenian aurkeztu eben udaletxian Gabonetako kanpaifia herriko dendari eta tabernarixak eta, prentsaurrekua amaitsu eta jarraixan, kaliak apaintzeko ipiñi dittuen argixak ixotu zittuen, alkatiak eta Eibar foball taldekuak lagunduta. Untzagan umiendako txokolatia banatu eben, karpa barruan egin zan dantzarako musika saiuan. Aurtengo argixetan 48.000 euro gastau dittue eta udalak hórretatik 34.800 euro pagauko dittu eta gaiñontzekua, barriz, Eibar Merkataritza Gune Irekiak. Gabonak dirala eta, urteroko moduan jarduera ezberdiñak antolatu dittue dendarixak, herrixa girotu eta jendia eroatera animatzeko asmuarekin. Bestiak beste umiendako Txiki-parka, barrakak, erosketa-bono eta promozioño berezixak eta bezeruen artian gabonetako otarrak banatzeko zozketia egingo dirala aurreratu eben presentaziñuan. Aurtengo barrittasuna, bestalde, Gabonetarako modu polittentian apaindutako eskaparatiak saritzeko antolatu daben lehiaketia da.



Kaliak apaintzeko ipiñi dittuen argixak ixotu zittuen unia. SILBIA

Naroa Ariznabarreta eta beste gaztieri alkartasuna



Herrixan egindako manifestaziñuetako bat.

Martitzenian zan hastekua Naroa Ariznabarreta eibartarraren eta Asier Alberdi, Saioa Zerain, Aritz Azkona eta Ainara Ladron gaztien kontrako epaiketia Donostiako Auzitegixan, baiña euretako hiruk (Naroa Ariznabarretak, Aritz Azkonak eta Ainara Ladronak) epaiketara ez juatia erabagi dabela esan eta, ixa jarraixan jakin da epaiketia martxuaren 2ra atzeratu dabela, hain zuzen be epaiketara aurkeztu ezian atxilotzeko agindua emongo ebela ez zetselako gaztieri sasoiz jakiñarazi.

Bost gaztiak 2007ko urtarrillian A-8

errepidia ixtiagaittik dagoz auzipetuta, Jarrai-Haika-Segi auzixaren inguruan Espaiñiako Auzitegi Gorenak emotekua zekan epaixa salatzeke protestan bost gaztiak alkarri katiatu eta errepidia Zarautz parian moztu ebela. Fiskalak bi urte eta erdiko zigorra eskatu dau bakoxtarendako. Bixen bittartian martitzen goizian Askagunia zabaldu eben Untzagan eta, epaiketia atzeratzeko erabagixaren barri eukitta be, aurreikusittako programiari eutsi detse eta atzora bittartian egunero hainbat ekitaldi garatu dittue.

Iturburuko 8B gelakuen bazkarixa

Azaruaren amaiera al-dian sasoi batian Iturburuko 8B gelako ikasliak izandakuak alkarrekin bazkaldu eben eta, bazkarixaren aitzakixarekin, edarto pasau eben. Taldiaren erretratuarekin batera bialdutako kronikan diñuenez, "badira urte



batzuk Lehen Hezkuntzako ikasketak atzian laga genduzela eta ikasittakuekin bakotxak bere bidiari jarraitu detsa. Halanda be, ez doguz ikasle sasoiko urtiak ahaztu eta azkenaldixan urtero-urtero egitten dogu 8. maillako bazkarixa. Aurten, gaiñera, Iturburutik urten giñala 25 urte bete dira eta 1982-1990 sasoiko taldian ibilli giñanak oindiok be harro oihukatzen dogu '8B!' argazkirako. Gaur egun askoren seme-alabak Iturburun dagoz edo laster juango dira eta espero dogu eurak be guriak bezalako oroitzapenak eukitzia eta, batez be, gu bezain ondo konpontzia".



Amañako jai batzordiarene otarra

Amañako jai batzordiak, urteroko moduan, San Andres jaxetarako zozketako berezixa preparau eban. Goizian goizetik hasi ziran horretarako errifak saltzen Untzagan eta, eguardi partian zozketia egin eta jarraixan, jateko eta edateko produktuekin betetako otar edarraren irabazliak premixua egunian bertan jaso eban, erretratuan ikusi leiken moduan. Zorionak eta on egin!

Apraiz famelixaren arma-bildumia

Gaur Santa Barbara artilleruen babesliaren eguna dala aprobetxatuta, Eibarko Armagintzaren Museuak Apraiz famelixiak udalari egin detsan arma dohaitzaren aurkezpena egingo dau, 19:00etan. Jose Luis Apraiz tiroko kirolari esanguratsua izan zan eta bere famelixak aditu horren bildumia emon detse, Museuak gorde eta erakusteko. Presentaziñua egittiaz gain, gaurtik aurrera eta 2016ko abendura arte bilduma hori ikusgai egongo da, museoko ohiko ordutegian, eguaztene-



tik zapatuta 16:00etatik 20:00etara eta domeketan 10:00etatik 13:00era.

Lahidalga zapatadendiari sarixa

Arragueta kalian daguan Lahidalga zapatadendak "10 bitxiak" sarixetako bat jaso dau. Gipuzkoako Bazkondeak, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza-Bulego Dinamizatzaileekin alkarlanian sortutako sarixarekin gure probintziako merkatarri nabarmeneri errekonozimendua egittiarekin batera, "10 bitxiak" sarixa jasotzen dabenekin "lurraldeko merkataritza bitxixen mapia" osatzia billatzen dabe. Merkatarixak botua emon eta, hórretxen arabera banatzen dittue sarixak eta oinguan Debabarrenakua Eibarko Lahidalgari emotia erabagi dabe.



autuan

SEXU-ERASUA

Ertzantzak Eibarren gertatutako sexu-erasuaren inguruko ikerketia egitten dihardu. Ustezko erasua zapatutik domekara bittartian gertatu zan eta, horren barri euki bezain pronto, San Andres egunian bertan gertatutakua salatzeo alkarrataratzia egin zan Untzagan, Nalua alkartiak deittuta. Konzentraziñuak jende mordia batu eban eta udaleko alderdi politiko guztietako ordezkariak be hartu eben parte.

SAN ANDRES EGOITZA

EH Bilduko ordezkariak pozik dagoz, azaruaren 18xan presentau eben moziñuari jarraituta, San Andres zaharren egoitza Kabia Organismo Publikuak bere gain hartuko dabelako: "PNVk eta PSEk Aldundian integraziño prozesua urtebete blokeatzia eta moteltzia alkarrekin adostu dabene arren, Eibarren 2016xa amaittu aurretik bere gain hartziaren alde siñatu dabe bixak, holan iaztik aurreikusitta eguana beteta". Gaur egunian Legarreko "ospitalak" 300.000 euro inguruko defizita daka.



Irekiera berria!

ILEDER

ESTILISTAS

%15^{dtua*}

ILEAPAINDEGIA

EL CORTE INGLES EIBAR. 1. SOLAIRUA

*Sustapen baliagarria 2015eko abenduaren 16ra arte. Deskontua ez zaie ile-apaindegiko produktuei aplikatuko. Tlfnoa: 633.161.422 - 670.822.224



asteko
27.438
datua

liburu digital emon dittu maileguan eLiburutegiak. Kataloguan ixa 10.000 titulu dagoz gaur egunian eta, maillegu kopuruari begira, 5. tokixan dago Eibar, Bilbo, Gasteiz, Donostia eta Getxoren atzetik.

Duintasuna alkartiaren billeria eta alkarrataratzia

Duintasuna, Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen alkartiak Eibarren egin eban hilleroko billeria aurreko asteko martitzenian, Arrate Kultur Elkartearen egoitzan. Betiko martxan, billeran hainbat gairen inguruan berbetan jardun eban eta, amaitsu eta jarraixan, udaletxe parian alkarrataratzia egin eban. Gaiñera, Indarkeria Matxistaren kontrako eguna zala eta, gitxieneko pensiño duiña ziurtatzia eskatzeko zabaldu eban pankartaren aldamenian emakumienganako indarkerixaren kontra daguazela azaltzeko bigarren bat zabaldu eban.



Hilleroko billeria Arrate Kultur Elkartearen egoitzan.

Saharako laguntasuna kanpamenduetara bidian



Eibar-Sahara alkartiak, Sahara Larsarte Oriak, Goierriko Sahararen lagunen alkartia, Amasa-Villabona, Urnieta eta Tolosako udalak, Tolosaldeko eskoletako batzuk eta Saharar Herrixaren lagun morduak kanpamenduetara bidaltzeko janarixa, eskolarako materixala (mahaixak, aulkixak, ordenadoriak...), ospitaletarako materixala, betaurrekuak, erropak eta beste hamai-

ka gauzarekin kontenedoria betetzeko biharrian jardun eban oin dala egun batzuk Tolosan eta, daren ahalegiñari esker, errefuxiatuen kanpamenduetara bidian dago dana. Bialdu dittuen hórretxek emoten lagundu daberen jende guztiari eskerrak emon nahi detsez, jendiak larrialdi egoeriaren barri euki eta horren azkar eta ondo erantzun dabelako.



Sanandresak Gasteizen

Atzera be ondo baiño hobeto ospatu zittuen San Andres jaixak Gasteizen, han bizi diran eibartarretako asko, 50 bat alkarrekin afaltzeko batu ziran eta. Juan Luis Santamaria bere Lambretta motorrarekin girua epeltzen hasi zan eta zuzeneko musikia be euki eban horrelako gaba berezixa girotzeko, beste batzuetan bezala Iosu Arizagak eta Kike Gisasolak osatzen daberen "Duo Amanecer" bikotiaren eskutik. Eta, jaixa biribiltzeko, Eibarko Udalak eta Eibar foball taldiak emondako oparixak jua ziranen artian banatu zittuen.

Biharrian gune barrixa martxan

Aurreko astian zabaldu eban Biharrian izeneko gune barrixa Ubitxa kalia, erabilli barik eguan eraikin industrial biziberritu batian. Inauguraziñuan azaldu ebenez, "sormenerako izatiaz gain, gure herriko hainbat enpresa gazterendako

alkargunia be bada, biharrerako espazioa partekatziatz gain interes komunak be badittugulako. Gure asmua disziplina arteko alkarlanak sortzen dittuan onuraz baliatzia da, Eibarren dagan aktibidade sare produktibua indartu eta bermatuta".



Gune barrixa Ubitxa kalia dago.



JON MIKEL MUJIKA (Hankamotxak)

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren hirugarren eta azken finalurrekoa jokatu da domekan, hilaren 6an, Astelena frontoian. 17:30ean hasiko den jaialdian Arkaitz Oiartzabal "Xamoa", Felix Zubia, Iñaki Gurrutxaga, Jon Maia, Mikel Artola eta Nahikari Gabilondo bertsolariek jardungo dute finalaren bila. Horretarako, honako lanei egin beharko diete aurre: binaka, gaia emanda, hamarreko handian, hiruna bertso; bakarka, lehen puntua emanda, zortziko txikian hiruna bertso; binaka, gaia emanda, sei puntuko motzean hiruna bertso; binaka, gaia emanda, zortziko txikian, hiruna bertso; eta, amaitzeko, kartzelako lana. Sarrerak Beleko eta Depor tabernetan erosi daitezke eta baita interneten ere (www.bertsosarrerak.eus). Gure herriko Hankamotxak bertso-taldeko Jon Mikel Mujikak gerturatu gaitu txapelketa horretara.

"Bertso munduak badu bizia Eibarren"

– Jarraitu duzu Gipuzkoako Txapelketa? Zelan ikusi duzu orain artekoa?

Saioetan ez naiz egon zuzenean, baina jarraitu dut internetez. Hitzetik Hortzera programan ere jarraitu dut telebistaz, eta baita irrati ere. Martxa onean diharduela ikusten dut, ezusteko handirik gabe. Hogei urte eta gero, faltan botako dugu Irazu finalean. Belaunaldi berrikoei begira, Oihana Iguaran-finalerako muga berak ipiniko du akaso- eta Mikel Artola aipatuko nitzuke. Bestalde, aurtengoak ere aurreko edizioetako mailari eutsi diola esango nuke. Jon Maia, Jokin Uranga eta Irazu izango ziren aurtengo nagusienak eta belaunaldi berrienetakoei azken koska hori aurrera egitea falta izan zaie.

– Ausartuko zinateke finalerako aposturik egitera?

Faboritua eskatzen didazu? Segurura jota, Beñat Gaztelumendi esango nizuke, azken bi finaletako buruz-burukoan izandakoa dugu eta, bietan ere Aitorrekin galtzeko: Mendiluzekin lehenengoan eta Sarriegirekin bigarren. Hor dugu Unai Agirre ere, azken aldian beti maila bikainean jardun duena. Alai Martin, Jon Maia bera... Oso berdinduta ikusten ditut txapelketaren azken urrats hauek, nahiz eta mota ezberdinetako bertsolariak izan bertan: eskola zaharreko Maia, berriko Artola, orain dela hamar urte finalean egon eta orain bueltatu den Iñaki Gurrutxaga...

– Zelan ikusten dituzu txapelketak orokorren? Non gozatzen duzu gehien: txapelketetan edo bertso-afari batean?

Bertsolaritza neurtzea oso zaila da, artea neurtzea inkoherentea eta subjektiboa den mailan. Baina txapelketek presentzia ematen

diote bertsolaritzari gizartean; hau da, eraginkorrak dira. Eta gazteenek ere hor aurkitu dezakete aurrera egiteko bidea. Bestalde, zeren alde egiterako orduan, egunaren arabera esango nuke: BEC-en sentitzen dena zaila da beste inon sentitzea, eta bertso-afari batek ematen dizuna ezin duzu areto handi batean aurkitu.

– Baduzu bertso-saio gogorrik, inoiz kalerik egiten ez diozunik?

Eibarkoa izanda, Arrate bezperakoa ez dut galtzen; gero, egun gutxira dakagun Markinako Kontzezino egunekoan askotan izaten naiz, baita Donostiako Bertso Egunean ere... Zuzenean hamar bat saio ikusiko ditut urtero, baina irrati (Hitzak Jolas) eta telebistaz (Hitzetik Hortzera) jarraitzen ditut.

– Zer egoera bizi dugu Eibarren bertso inguruan? Bertsozalea pozik egoteko modukoa?

Bertsoa gure artean nahiko bizi dagoela esango nuke. Hankamotxak Bertso Eskolako ok asteen behin elkartzen gara eta, horrez gain, Aimar Goenaga eta Jon Martinezek 9-10 urteko gazteekin dihardute lanean. Saiocoei begira ere dozena erdi bat badira urtero: ...eta kitto!-k antolatzen dituen Arrate bez-

perakoa eta San Andresekoa, Arrate Kultur Elkartearen urterokoa, Belekun eta Akaran izaten direnak, Gaztetxearen bueltan egiten direnak... bertso-zalea asetzeko lain.

– Zu zeu ere, bertsotan baino gehiago, gaitzaitzaile ikusi zaitugu azken aldian... Bikain diharduzula diote. Lan asko eskatzen du?

Desberdina da jarduna: aurretik egin behar duzu lan, etxean. Aurrean izango dituzun bertsolariak hartu behar dituzte kontuan gaiak jartzen asmatzeko. Ez da lan erraza, zuk aurrez pentsatutakoa txiki gera daitekeelako gero Maialen Lujanbiok eman ditzakezun erantzunarekin, esaterako.

– Zer da ezinbestekoa bertsolaria izateko?

Lehendabizi, euskera asko menperatzea: ia ama-hizkuntza parean izan behar duzu. Horrez gain, buruko txispa hori ere izan behar duzu. Inprobisatzeko ahalmena izatea da gako. Gehienak esponja modukoak dira, inguruko guztia barneratu eta gero erabiltzeko gauzak. Nik ez dut lortu hain saiatua izatea.

– Bertso munduak bizi izan duen bilakaera...

Beharrezkoa zen. Orain 40 urtekoarekin jarraituz gero, belaunaldien arteko etena izango zen eta gazteek ez zioten jarraituko.



Elkarrizketatua behartuta domekako bertsolariak hitz bakararekin definitzera, honakoa izan zen emaitza:

Arkaitz Oiartzabal: goxoa
Felix Zubia: jakituna
Iñaki Gurrutxaga: saltseroa
Jon Maia: galaia
Mikel Artola: gaztea
Nahikari Gabilondo: zuzena

Aurten mende erdia betetzen duen Durangoko Azokak bost egun izango ditu gozatzeko, gaurtik hasi eta martitzenera bitartean. Aurtengo edizioa, gainera, berezia izango da, inoiz baino kultur ekitaldi gehiagorekin, 250 ingururekin jantzita ailegatuko zaigu eta: kontzertuak, solasaldiak, proiektzioak, umeentzako jarduerak, tailerrak, ikuskizunak... Eta hori guztia 700 metroren barruan, bost minutuko distantzian.



DURANGOKO AZOKA mende erdira ailegatu da

Urteak urtera Azoka hobetzea gero eta zailagoa den arren, antolatzaileek berriz ere lortu dute iazko datu baikorrak aurtengo edizioan are positiboagoak izatea: aurten 249 erakustoki ipiniko dira, iaz baino lau gehiago. Guztira, stand horietan 350 nobedade aurkeztuko dira: 228 liburu, 63 disko, 19 aldizkari... Baina liburu eta diskoetan gorakada eman bada ere, argitalpen elektronikoetan egon da gorakadarik handiena, aurten 18 nobedade aurkeztuko baitira (iaz lau izan ziren). Edizio honetarako aurrekontua 750.000 eurokoa izango da.

Mende erdia liburu batean

Bestalde, eta Azokaren 50. urteurrena ospatzeko, Gerediaga elkarteak Durangoko Azokak mende erdian bete duen ibilbidea biltzen duen liburua eman du argitara. Egileak Jesus Mari Arruabarrena, Joseba Sarrionandia eta Txelu Angoitia dira eta azala, berriz, Jose Luis Zumetarena da. Jakina, nahi duenak liburua Azokan erosteko moduan aurkituko du, 20 eurotan. Elebidun kaleratu dute lana, baina liburuak dauzkan 255 orrialdeetako gehienetan euskerazko testuak gaztelarazkoari gailentzen zaizkio.

Euskal Dendak 20 urte

Azokaren 50 urteez gain, aurten bada ospatzeko moduko beste urtemuga biribil bat, Arbaso elkarteak antolatzen duen artisautza azokak aurten 20 urte beteko ditu eta. Durangoko Azokak moduan, abenduaren 4tik 8ra arte zabalduko ditu ateak honek ere, es-

kuz egindako hamaika produktu salgai eskaintzeko. Merkatu Plazan egiten den azokak aurten 51 erakustoki bilduko ditu eta guztietan Euskal Herrian egindako artisaun-lanak baino ez dituzte eskainiko: nekazaritza produktuak, egurra, zeramika, beira, forja, larrua, ehungintza, kosmetika, bitxigintza, jostailuak, papera... Tartean, Eibarko Eskulan (Nerea Lazpita eta Josune Mugerza) eta Artezi Tapizeria (Deunorone Bizkarra eta Iratxe Artiach) izango dira. Goizetan 11:00etatik 14:30ak arte zabalduko dute eta arratsaldetan, berriz, 16:30etik 21:00ak arte.

Aurten Nafarroako Gobernua ere

Eta zenbaki biribilekin jarraituta, hamabost urteko etenarekin amaituko du Nafarroako Gobernuak aurtengo edizioan, berriz ere parte hartzen izango da eta. Gobernu nafarrak prestatu duen erakusleihoan egongo diren nobedade nagusien artean, besteak beste, Javier Iturbideren "Cuando las cosas hablan. La historia contada por cincuenta objetos de Navarra", Koldo Azkunereren "Garatea", Matias Mugicaren "Con letra aguda y fina. Navarra en los textos de Julio Caro Baroja", Pedro de Axular eta Blanca Urgellen "Gero" eta hainbat egile dituen "Nafarroa Julio Caro Barojaren begietan" aipatu daitezke.

Gunez-gune, metro gutxitan

ARETO NAGUSIA: Bigarren urtez "Gogoetaren plaza" antolatuko da. Biharkoak Gaur Aurtengo izango da mahai-inguru eta solasaldien goiburua. Etorkizunari begira jardungo dute sor-

tzaile, kultur eragile eta industriako kideek: Andoni Egaña, Asisko Urmeneta, Zinemaldiko Maialen Beloki, Jose Mari Agirretxe 'Porrotx', Itxaro Borda, Ruper Ordorika, Eider Rodriguez, Jon Maya dantzaria eta abar. Egun bakoitzak ere gai jakin bat izango du: abenduaren 5ean euskal kulturaren ikusgarritasuna, 6an kultur politikak, 7an erreleboa eta 8an prestigioa.

AHOTSENEA: Marka guztiak hautsiko ditu edizio honetan: 120 emanaldi baino gehiago egongo dira -70 zuzeneko eta 50 solasaldi-. Gainera, 50. urtemugako ikuskizuna ere egongo da: Lekord taldearen "Sokak". Solasaldien gunea aurten Landako barruan egongo da, eta 9 disko eta 42 liburu aurkeztuko dira. Euskal literatura eta musikagintzaren izen handi ugari elkartuko dira: Jasone Osoro, Bernardo Atxaga, Karnele Jaio, Harkaitz Cano, Ken Zazpi, Mikel Urdangarin...

SAGUGANBARA: Txiki eta handien plazan umeentzako eta familientzako jarduerak ugari izango ditugu: hamabi ipuin kontalari, 19 tailer... Horrez gain, hainbat ekimen berritzaile izango dituzte. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna eta Irrien Lagunen jaiak izango dira seguruenik ekitaldirik jendetsuenak.

PLATERUENA: Kontzertu handien plaza izango da beste urte batez. Izen handiko musika-taldeak elkartuko dira bertan, gustu eta publiko ezberdinei zuzenduta: Esne Beltza, Iheskide, Bidehuts gaua (Jupiter Jon, Sacco, Anari, Iratzoki & lagunak, Audience...), Olatz Zugazti eta Korrontzi. Sarrerak dagoeneko salgai daude www.plateruena.eus webgunean eta Antzoki-barran.

IRUDIENEA: Ikus-entzunezkoen plaza ekimenez josita izango dugu bost egunez. Ikasle Egunean haur eta gazteei zuzendutako ikus-entzunezkoetan dagoen eduki sexistari buruzko tailerra eta hitzaldia egongo dira: Emakunderekin elkarlanean. Katixa Agirrek eta Oihulari Klownek parte hartuko dute. Egitarau anitza prestatu dute: Kameratoia Ikus-entzunezko Rallyaren XI. edizioa, euskal zinemagintzaren belaunaldi berriekin mahai-ingurua, EHUko ikasleen film laburren emanaldia... eta orokorrean sortzaile gazteen eta beren lanen presentzia egongo da Irudienean. Horrez gain, proiektioei dagokionez, Amama pelikula, Euskal Herriaren ABDak eta Goenkaleren azken hiru pelikulak primizian eskainiko dira.

SZENATOKIA: Arte eszenikoen plazan, San Agustin Kulturgunean, Zirko Anabasa izango da nobebade nagusia. Ekimen hori abenduaren 8an izango da, eta Euskal Herriko Zirkuaren lagina ezagutu ahal izango dugu: Shakti Olaizola kontorsionistak, Cie Mes Tisages Aeriens oihal aereoak, Ortzi Acosta paraleloetan, Debote Enbote malabaristak eta Malas Compañías akrobatak parte hartuko dute. Horrez gain, Itziar Eliasen "Eskutitzak" antzezlan ikusteko aukera izango dugu. Antzerki eskolek ere topagunea antolatuko dute "Kafie eta berba" ekimenaren baitan, eta



antzerki maratoiak txapela jarriko dio Szentokiaren egitarauari. Bestalde, Jose Luis Zumetaren lan bi erakusgai egongo dira San Agustinen eta bere lanaren inguruan egindako dokumentala proiektatuko da. Azkenik, inaugurazio ekitaldia eta Argizaiola Sarien ekitaldia ere bertan antolatuko dira, abenduaren 4an eta 5ean, hurrenez hurren.

KABI@: Digitalaren plazaren lehenengo nobedadea aurten bere espazio fisikoa izango da: domo geodesiko baten barnean egongo da, hots, kabi itxura hartuko du, baina bertara sartzeko Landako gunetik igaro beharko da. Eragile ugari topaketak egingo dituzte

Kabi@n: Euskal Igerrak (euskal instagram komunitateak), Gamerauntsia (bideojokoen euskal komunitatea), wikilari euskaldunen bilkura... Bestalde, tailer eta hitzaldi ugari egongo dira: irrati-estazio bat montatzeko tailerra, hedabideen etorkizunari buruzko mahai-ingurua, tabu-hitzaldiak eta abar.

AZOKA TB: Azoka Telebistan aurten inoiz baino hedabide gehiagoren lankidetzan egongo da. Honakoak izango dira parte-hartzaileak: Goiena, EITB, Hamaika TB, Kanaldude, Tokikom eta Berria. Azokak irauten duen bitartean, Azoka TBk emisio jarraitua eskainiko du zuzenean.

Gabonetako OTARRA
2.000 €ko balioa duen Otarra
 Prezioa: 1€
 Zabaldu 2015eko abenduaren 15ean eguneko da
 Zbk: Euskarria Elkartea

46"ko TELEBISTA eta gabonetako produktuak dituen otarra

2.000 euroko Gabonetako OTARRA

1€

GAUR (19.00-21.00) BIHAR (13.00-14.00) KALEAN EROSTEKO AUKERA

SALMENTA LEKUAK

- Korreos bulegoa
- Isasi okindegia
- Arriaundi okindegia
- Izadi loradenda
- Mugika harategia
- Kultu taberna
- Etxeto prentsa
- Arriola prentsa
- Maria Ospital (Calbeton)
- Otegui harategia
- Zubi Gain taberna
- Bolintxo okindegia
- AEK
- Udal Euskaltegia
- San Andres gazotegia
- Zabaleta okindegia
- El Tio Palancas

"Euskal Jaia Eibarren. 50 urte"

LIBURUA ETA DVD-A 10 €-TAN SALGAI

Klub Deportiboan (T. Etxebarria, 16 - ARRATSALDEZ-)

...eta kittol-n (Urkizu, 11)

Yraolagoitia liburudendan (Bidebarrieta, 20)

Echetto prentsa kioskoan (Urkizu, 6)

Arriola prentsa kioskoan (Untzaga, 10)

Laes informatika dendan (T. Anitua, 4)

Dendariak eta ostalariak BERBETAN

Sanjuanetan egindakua bidetik, asteburu honetan be EUSKARAZ ESKATU diñuan txapak banatu dittugu tabernetan jendia euskeraz berba egittera animatzeko. Euskeraz eskatu dozue? Ipiñi dittuzue txapak?



Julian
TRINKETE taberna

“Euskeraz asko ez badakit be, soiñean eraman dot pin-a eta jendiak euskeria zeozer gehixago erabili dabela esango neuke. Horrelako ekimenak oso lagungarriak dira euskeria bultzatzeko”



Maite
ASTELENA taberna

“Erabilleria antzerakua izan da, betiko jendia ibilli da gurian eta badagoz batzuk beti euskeraz egitten dabenak eta beste batzuk beti gazteleraz egitten dabenak”

“ATEAN EZ GELDITU, EUSKARAZ ARITU!” esaldixarekin 20.000 pegatina banatu dittugu herriko dendetan. Zelako harrera euki dabe oin arte?



Ainhoa - DITARE

“Ondiok oso pakete gitxi egin dittudaz, jendia ez da hasi oparixetan pentsatzen eta, egixa esateko, pegatiña bakarra ipiñi dot. Ez dot uste pegatiñakin konturatu zanik be... Baiña ia harrera ona dakan”



Loli - IKUSI MAKUSI

“Oso ideia ona begittantzen jata, eta bezeruak be eskertzen dabe holako ekimenak antolatzia. Nik ez dot euskeraz ondo berba egitten, baiña jendiak animatzen nabienian lasaitu egitten naiz”

Herritarrak zeozer egin geinke? Danerako erabiltzen dogu euskeria? Baita erosketak egitterakuan be?



Ana Aranberri

“Oso ekimen politta dala begittantzen jata. Koloregaittik be erraz ikusi leike zeñek erabiltzen daben. Gaiñera praktikua da; tamaiñua eta formia oso egokixak dira eta errez erabili leike”



Jone Etxaniz eta Harkaitz Gimber

“Ondo begittantzen jaku; euskeriakin akordau arazteko balixokua izan leike, Eibarren ez dalako larregi entzuten. Ni ondarrutarra naiz eta erabilleran alde haundixa dago herri bixen artian”



Manuel Soto eta Milagros Iturricastillo

“Ondo begittantzen jaku. Ideia politta da, batzuetan ez dakagulako erabiltzeko ohitturarik. Etxian be alabiak errietan egitten desta ez dotelako euskeraz egitten. Ia holan euskeriarekin gehixago arduratzen garan”

DESCUBRE-TE

Teak, kafeak, txokolatateak, ezti... eta baxera bereziak!!

Probaleku, 4 - Bis (ERMUA) 943 03 15 81
descubretenew@hotmail.es www.teteriadescubre-te.com

Isasi, 31 Egutero 06.00-22.00
943 207 737

*Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!*

Astelehenetik ostegunera
PINTXO-POTEA!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLINDO

Gazteendako robotika tailerra gabonetan

Gabonetako oporrak gerturatzeko doazela eta, udalak "Robotika" lantzeko tailerra antolatu du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxillergo ikasten ari diren nerabe eta gazteentzat. Aurretik ere horrelako gaien inguruan antolatu dituzten tailer eta ikastaroek oso harrera ona izan dutela ikusita, aurtengo gabonetako oporretan ere "Robotikako Lego Mindstorms EV3" plataformarekin garatzeko tailerra egingo da hiru egunetan Juan San Martin Liburutegiko haurren atalean, abenduaren 28tik 30era, 09:00etan hasi eta 13:00era bitartean. Beste batzuetan eginda-koaren bidetik, ikastaroa tailer teknologiko-

ak ematen aditua den Doplay elkarteok emango dute, euskaraz. Interesa dutenentzatzat izena emateko epea zabalik dago (abenduaren 14ra arte) eta prezioa 45 eurokoa da Eibarren erroldatuta daudenentzatzat eta, bestela, kanpokoek 65 euro ordaindu beharko dute eta matrikula Pegoran egin behar da. Plaza-kopurua mugatua da eta, beraz, eskaintzen diren plazak baino jende gehiagok izena emango balu, zozketa bidez aukeratu-ko lituzkete parte-hartzaileak. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943708437 telefonora deitu daiteke (Asier) edo, bestela, www.eibar.eus helbidean begiratu.



DBH eta Batxillergoko ikasleentzatzat izango da tailerra.

Banatu dituzte Eibar Beldur Barik sariak



Zapatuan Amurrion egindako topaketan banatu zituzten Euskal Herri mailako Beldur Barik lehiaketako sariak eta, irabazleen artean eibartarrak egon ez bazen ere, bezperan saritu zituzten gure herritik lehiaketara aurkeztutako lanik onenak, aurreko barixakuan Portalean egindako Eibar Beldur Barik jaialdian. Irabazleei sariak banatu aurretik, Eli Pagola, Manu Goiogana eta Nerea Elustondo bertsolariek saioa eskaini zuten eta, hori amaitu eta jarraian, Eibartik lehiaketara aurkeztutako bideoak proiektatu zituzten. Aurtengo edi-

zioan eibartarrek egindako sei lan lehiatu dira, bost 12/17 urte bitarteko- en mailan eta bestea, berriz, 18/26 urte bitartekoan, eta epai-mahaikideek maila bakoitzeko lan bat aukeratu dute herri mailako saria jasotzeko: gazteen artean Marina Laspiur Dosuna, Xabier Badiola Bastida, Naroa Garzo Diaz eta Yaiza Cabrera Rios-en "Spira Beldur Barik Coliflower Power" lanak eskuratu du saria eta nagusien mailan, berriz, Nerea Armero Garzon eta Marina Diez Arrizabalagaren "Hablur por hablar" izenburukoak.

Pirritx,
Porrotx orain "Amalur"
etx. MaRiMotots LAN BERRIAREKIN

abenduak 12
ZAPATUA
16.30 eta 19.00

abenduak 13
DOMEKA
16.00 eta 18.30

SARRERAK SALGAI (8 euro)
El Tío Palancas (JUAN GISASOLA),
eta
GOZOKI (BIDEBARRIETA ETA SOSTOATARREN)

f M Funeraria·Ehortzetxe
Mugica

EIBAR
Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR
Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko
erdialdean

Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
☎ 943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze
Taldea **GRUPO Funeuskadi**



azokia

Asteburuak sanandresak

Egurdixa lagun euki dogu aurtan San Andres bezperan, **azokia eta Plazara Dantzara** eguzki-erdi-egun amaittu eta jarraixan aurtengo irabazliak jandro Arrieta (barazkixetan), Antzuola eta Otaola (tugaleteko Ekaitz Aurre (eztixetan), Otaola eta Jose Aranburu (gaztetan). Loixola eta Otaola iri bikoitza jaso eban, aurkezpen onenak irabazliak eskuratu zittuan eta. Kartel lehiaketaren irabazliak kartearen Pintxo Lehiaketako irabazliak batera banatu zetsazen sarixak.

Aurtan asteburu luze eta betiaren betiereko troiaren eguna. Izan be, hainbat hitzok erabazliak zer ospatu ez genduan faltan euki: **Uztailaren 15** bar foball taldeak **Real Madril**en kontrako **Txistorra Eguna**, **Jaixak Herrixak Herrixak** eta **San Andres bezperan**.

Domekan, San Andres bezperan baldin bezala, **Untzagan bakillaua pil-pil eran** prestatu behen sarixa Jose Miguel Gorospek eta Otaola onenak Juan Carlos Amado eta Jon Mendiak irabazi, **Errebalen** **Rugbi Taldia**, **Valle tabernia** eta "Euzko Futbol Berto Echaluze kazetarixa.



herri-kirol parkia



salaketia

ES RESPONSABILIZADO DE TODAS ACTUAR CONTRA LA VIOLENCIA SEXISTA.

ERASOTZEAILA ATZETIK IRANGO GAITZUEU!

SI TOGIN ANTIK RESPONDEMOS TODAS

ERASOTZEAILA ATZETIK IRANGO GAITZUEU!



ganaua



Errebalen



talo-postua



eMePebo5t



herri-bazkarixa

uzatutako dresak

n Andres egunian eta, aspaldiko par-
ipian ospatu genduzen. Dantza saia
ak **sarixak** jaso zittuen: Markiñako Ale-
lako Maria Jose Arregi (frutetan), Por-
rduñako Arantzazu Meabe (ogixetan)
basarriko Oier Agirrebeñak, barriz, sa-
a eta Eibarko basarri onena, bixak be-
etako irabazlieri zein Arrate Kultur El-
eri be orduantxe, azokako irabazliekin

atzetik aillgau da gure herriko pa-
rdu berezi tartian, barixakutik aurrera
ekabe fanfarrearen 15. urteurrena, Ei-
lako **partidua**, Txirindulari Elkartean
andakok antolatutako programia...
killaua izan zan protagonista nagusixa.
atzen ibilli ziran 33 bikotien artian le-
Gorka Aranzetak lortu eben, bigarren
irena izan ziran eta, hirugarrenak, ba-
a **Eibarko Bakillauaren Kofradixiak** ur-
kide barrixak izendatu zittuan: Eibar
ropa Azul" rebistia egitten daben Al-

argazkiak: LEIRE ITURBE



21 eibartar Donostiako Maratoi egunean

Euretako 11 atletak maratoi osoan hartu zuten parte, seik maratoi erdia egin zuten eta beste lauk 10 kilometroko proban. Maratoian 2.972 atletak amaitu zuten proba eta Kipchirchir keniarra (2h13'56") eta Matea Matosevic kroaziarra (2h45'25") izan ziren irabazleak. Maratoi erdian Lars Sodergard suediarra (1h05'38") eta

Fabiana Lafuente espainiarra (1h16'20") nagusitu ziren, eta Pello Osoro eibartarra zortzigarren sailkatu zen. Eta, azkenik, 10 kilometroko lasterketan, Angleteko J.C. Daribarne (30'22") eta Newcastleko D. Hodgkinson (36:09) izan ziren onenak. **Hona hemen eibartarrek lortutako postuak eta egindako denbora:**

MARATOIA

194	Iñigo Trokaola	2h54'13"
603	Eduardo Uribe	3h08'27"
702	Raul Fernandez	3h12'03"
703	Liher Prieto	3h12'04"
956	Aitor Oiarzabal	3h20'10"
1.373	Juan Luis Azkune	3h30'32"
1.719	Jon Zubia	3h38'50"
1.885	Enrike Acuña	3h44'38"
2.182	Mikel Lizarralde	3h53'52"
2.386	Ibon Muñoa	4h01'59"
2.877	Lourdes Iriarte	4h37'41"

MARATOI ERDIA

8	Pello Osoro	1h11'08"
113	Javier Murcia	1h22'15"
205	Iosu Lahidalga	1h26'19"
207	Imanol Lahidalga	1h26'33"
630	Jokin Martinez	1h40'37"
1.106	Roberto Gallego	1h53'34"

10 KILOMETRO

74	Iñaki Aldai	38'40"
283	Fermin Sebastian	47'50"
636	Nerea Telleria	58'05"
637	Josu Hernando	58'05"

Somos Eibar eta Haritza bigarren postura gerturatzen

Eibar Eskubaloiko mutilen senior mailako talde biak garaile izan ziren azken asteburuan eta, emaitza horiekin, euren sailkapeneko bigarren postua gero eta gertuago dute. Somos Eibarrek 29-32 irabazi zion Gasteizen Gure Auzuneri; atsedenaldira arte partidua serioa eginez kontrolpean izan bazuen ere, bigarren zatia zorobidea hartu zuen eta talde bietako entrenatzaileek eskutatuko hutsarteetan ondo kostatu

zitzaien neurketa onbideratzea: lau minututan talde bien artean 10 gol sartzea ez da ohikoa izaten. Orain, Fernandezen mutilak, igoerarako play-offari begira, Tolosa bigarrenarengandik hiru puntura daude. Bestalde, Zarautzen 17-33 irabazi eta gero, Haritza bigarren taldea Gipuzkoako Lurraldeko 1. mailako hirugarren postura igo da, bigarrenarengandik puntu bira eta Donibane lerrerarengandik laura.



Somos Eibarrek 2014-15 denboraldiko Liga irabazi zuen.



Gerriko beltz berriak Manu Agirre euren prestatzailearekin.

Defentsa pertsonaleko lau gerriko beltz berri

Aurreko domekan defentsa pertsonaleko gerriko beltza lortzeko azterketak egin zituzten Kalamuako lau kirolariek Lezazpiko Vicuña kiroldegian, eta baita probok gaintu ere. Javier Asorey, Jon Alzaga, Hegoi Esteban eta Iker Martinez dira Eibarko klubeko gerriko beltz berriak; Iker Martinezek, gainera, judoko gerriko beltza eskuratzeko azterketa ere egingo du hemendik gutxira. Bestalde, bezperan, zapatuan Hernaniko kiroldegian jokaturako senior mailako Euskadiko txapelketan, Josu Olmosek brontzeko domina lortu zuen, horrela Espainiako txapelketako sektorean parte hartzeko txartela bereganatuz.



Triatloirako igeriketa ikastaroa domeketan

Eibarko Kirol Patronatoak igeriketa-ikastaroa antolatuko du triatloi modalitatean dihardutenentzako bereziki prestatutakoa. Ipurua kiroldegian egingo da domekero, 09:30etik 11:30era, honako egunetan: abenduaren 13an eta 20an, urtarrilaren 10ean eta 24an eta otsailaren 7an eta 14an. Bertan parte hartzeko kopuru mugatua dago eta, bazkideek 120 euro ordainduko duten moduan, bazkide ez direnek 150 ordaindu beharko dute. Interesatuek 943-203240 telefono zenbakira deitu edo eibarkirolak.com helbidera idatzi dezakete izena emateko.

Bihurri-Etxeberria garaile aizkolarien San Andresetako Torneoa

Astelehenean Errebalen jokaturako Policlínica Gipuzkoa Torneoaren laugarren edizioak ikusle mordoa bildu zuen antolatutako lehiaketak ikusteko irrikaz. Oraingoan hamar aizkolariak (senior mailako sei eta jubenil mailako lau) jardun zuten lanean eta, maila handiko borrokan, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eibartarrak lortu zuen irabaztea, Etxeberria lagun zuela. Minututik beherako aldearekin jarraitu zieten Zubizarretak eta Alex Txikonek, eta hirugarren postua Mujika



Aizkolari guztiak Policlínicako (Sonia Roussel) eta Eibarko Udaleko (Patxi Lejardi) ordezkariekin.

eta Ferminentzat izan zen. Gazteen mailan, bestalde, 16 urteko Hodei Ezpeletak (Bihurriren semea, lauren artean gaztee-

na) lortu zuen txapela, Eloy Kortxero lagun zuela, Josean Etxeberria eta Aitor Jauregiri irabazita.



Del Bosque Espainiako selekzioko entrenatzaileak inauguratu zituen ipar-harmailako instalazioak zapatu eguerdian.

Hiru tren joango dira Eibartik domekako Real-Eibar partidura

Eibar FT-ko zaletuek Donostiara joatea erabaki badute ere, zalan-tzan dago Anotara joango diren. Urko Taldea peñak antolatutako ekimenak arrakasta izan du, hiru tren bete baitira domeka goizean Donostiara joateko; ez da gauza bera igarri partidurako sarrerentzako salmentarekin eta Realak bidalitakoak tantaka saldu dira lehen egunetan Eibar Ft-ko bulegoetan. Domekako trenak 08:32an, 08:49an eta 09:00etan irtengo dira Ardantzatik etzi goizean, eta itzulerakoak 17:27an, 17:42an eta 18:27an irtengo dira Donostiatik. Partidua eguerdiko 12.00etan jokatuko da.

Binakako txapelketako partidua Astelenan

Etzi arratsaldean Irujo-Rezusta eta Irribarria-Zubieta bikoteen arteko partidurekin amaituko da I. mailako binakako txapelketaren lehen jardunaldia. Aspe enpresako bikote bien arteko lehia izango da jaialdiko partidua nagusia, eta aurretik Jaunarena-Irusta eta Mendizabal III.a-Merinoen artekoa jokatuko da. Amaitzeko, Aritz Lasa eta Urruzola izango dira, nor baino nor, Gorka eta Cecilioen kontra. Bestalde, asteleheneko San Andres eguneko jaialdian, Irribarriak eta Zubietak 22-16 irabazi zieten Altuna eta Rezustari partidua nagusian eta, lehen partiduan, emaitza bera eman zen Xala eta Irustaren alde Retegi Bi eta Merinoen aurrean.

AviaEibar errugbi taldea sailkapeneko erdialdean

Azken jardunaldian Unben VRAC Quesos Entrepinares B taldeari 19-13 irabazi eta gero, Urkidiren mutilek sailkapeneko 7. postura egin dute jauzi, 17 punturekin. Jarraian lortutako bigarren garaipen horrek animoak eman dizkio taldeari bihar arratsaldeko 16:00etan Ardantza errugbi zelaian Plentziako Kakarraldoren aurka jokatuko duen partidurako, lehen itzulia ahal den ondoen amaitu ahal izateko.

JOSE LUIS MANTECON GONZALEZ

(2015-XI-24)



"Beti izango zara gure oroimenean"

Eibar FT-ko jokalaria-ohiak





Vicente Iriondoren margo erakusketa

San Andres egunean inauguratu zuen Vicente Iriondo eibartarrak pintura-erakusketa Ermuan, Lobiano Kultur Gunean. Margolanak abenduaren 13ra arte egongo dira ikusgai, egunero 18:00etatik 20:00etara.



Bihar (abenduak 5, larunbata) "Zapatilla gorridun mutikoa" antzezlan eskainiko du Ados Teatro-k Coliseoan, 17:00etan (sarrerak 5 euro balio du). Keinu-antzerkiko ikuskizun hau Garbi Losadak zuzendu eta idatzi du. Aniztasuna gure gizartearen elementu aberasgarri bezala erakusten saiatzen da, eta bere bitartez konpainiak Koldo Losada aktoreari omenaldi bitalista eskaini nahi dio.

J. ANTONIO VITORIA (Ados Teatro-ko ekoizlea)

"Hurrei inguruko aniztasun afektibo-sexuala ulertzen laguntzen diegu"

- Hurrei eta orokorrean publiko orokorrari eskainitako lan honetan aniztasuna gure gizartearen elementu aberasgarri bezala erakusten saiatzen zarete, ezta?

Gure asmoa "antzerki familiarra" egitea da. 5 eta 100 urte bitarteko pertsonengan emozioak sortaraztea da helburua. Keinu-antzerkia, dantza eta aniztasun afektibo-sexualaren gaiarekin lotzen dugu, eta hauxe da, hain zuzen ere, lan honek duen berezitasun nagusia.

- Zein da antzezlarekin bidali nahi duzuen mezua?

"Zapatilla gorridun mutikoa" k umorez hitz egiten du bokazioaz eta sexu-desberdintasunaz. Obra honek, hurrek berdintasuna sustatzeko istorioak ezagutzeko duten beharrianari erantzuten dio, eta aniztasun afektibo-sexuala ulertzen lagunduko die. Homosexualitateaz hitz egiten da, baina sexu-aukera gauza normalizat jotzen dugu. Hau da, ez dugu ezberdintasuna azpimarratzen, ezberdintasunaren normalitatea baizik. Antzezlanak Luis protagonistaren bizi-zikloa erakusten du, haurtzarotik hasita zahartzaroraino. Bere bizitza errepasatzen dugu, bere bokazioa ezagutuko dugu, inguruan dituen gainerrako haurren bokazioarekin alderatuta ezberdina dena. Gabi Losadak idatzitako lana da, eta berak esaten duenez, "istorio pertsonala da, nire nebaren galerari erantzuten diona. Obra hau sortzea konpainia osoaren beharri izan da; Koldo egongo ez den lehendabiziko ikuskizuna da".

- Keinu bidezko lenguaia erabiltzen duzue, eta eszenografiek eta mozarroek sekulako garrantzia daukate...

Keinu- eta maskara-lenguaia erabiltzen dugu, eta horri esker 3 aktoreek (Ion Barbarin, Txori Garcia Uriz eta Montse Zabala) adin desberdineko 15 pertsonaiei bizitza ematen diete, umore suabea erabiliz. Protagonistaren ametsek eta barne munduak garrantzi handia daukate eta, horren harira, eszenografia eta jantzien bitartez, paperez egindako mundu ez errealista sortu dugu. Horretaz gain, Bertha Bermudez-ek koreografiatutako dantzek eta Javier Asin-ek egindako musikak ere pisu handi daukate.



Roteta eta Manterola sukaldariak ...eta kitto!-n

Abenduaren 16rako sukaldaritzari buruzko hitzaldia antolatu du ...eta kitto!-k -Berbetan mintzapraktika egitarauaren barruan- arratsaldeko 19:00etatik aurrera bere egoitzan bertan. Hitzaldian Ramon Roteta eta Pili Manterola sukaldari ezagunek jardungo dute sukaldaritzari buruzko gorabeherak azaltzen. Ibon Gaztañaspi telebistako aurkezleak gidatuko du saioa.



Harixa Emoten Jabier Muguruzarekin

Martitzenean Harixa Emoten euskerazko irakurketa-taldekoek hileroko saioa egin zuten Portalean. Abenduko solasaldirako aukeratutako liburua Jabier Muguruzaren "Hilen logika ezkutua" zen eta, hileroko martxan, irakurketa taldeko kideek horri buruz idazlearekin berba egiteko aukera izan zuten eta, Antxon Narbaizak lagunduta, eleberriarri mamia ederki atera zioten.

Lan-mundua umore klabean

Gaur 20:30etik aurrera "Jobs" antzezlana taularatu du Clownic konpainiak Coliseo antzokian. Tricycle taldearen bigarren konpainia den honek 16 urteko ibilbidea egin du eta urte guzti hauetan Tricicleren espektakulu ezberdinak eskaintzen ibili da mundu osoan zehar, beti ere jatorrizko lanei jarraituta. Hala ere, orain dela hiru urte Clownic-ek berak sortu eta ekoiztutako ikuskizuna, "Ticket" egitea erabaki zuen eta lanak Espainian zein atzerrian izan zuen harrera ona ikusita, gaur Eibarren aurkeztuko duten "Jobs" sortzera animatu ziren. Ikuskizunean lan-munduaren gorabehera errepassoa egiten diete, beti ere ikuspe-



gi komiko batetik abiatuta eta "10 segundo-tik behin barrea eragin nahi duten" sketch mordoia bata bestearen atzetik antzeztuta. Gagman-ek zuzenduta, taula gainean Xevi Casals, Gerard Doménech eta Edu Méndez antzezleek jardungo dute. Sarrerak 15 euro balio du.

Gozatu kulturaz merkeago

Abantaila ugariarekin kulturaz gozatzeko aukera ematen duen bonuen salmenta egingo dute Coliseoan datorren astean, abenduaren 9, 10 eta 11n, 18:00etatik 20:00etara. Bonuek "Kaixo Kultura" adierazgarria duten denda, antzoki eta bestelakoetan erabiltzeko balio dute, kulturari lotutako ordainketa-tan hainbat deskontu eskuratu ahal izateko. Bonuak erabilia, besteak beste 10 euroko deskontua eskura daiteke liburu,

DVD, disko eta horrelakoak erostean eta 15 eurokoa, berriz, hainbat ikuskizunetan.

Bestalde, bertako ikuskizunen kontsumoa bultzatzeko Euskadiko Antzoki Sareak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak "Zatoz antzokira" izeneko kanpaina abiatu dute. 2016ko maiatzera arte iraungo duen kanpainan Sareko 54 antzokik hartzen dute parte eta 3 ikuskizunetara joan eta horiei dagozkien zigiluak txartelean markatuz gero, laugarren baterako sarrera doan eskura daiteke. Informazio gehiago eskuratzeko www.kulturklik.com edo www.eskena.com helbide-etan begiratu daiteke.




laburrak

KONTZERTUA EZ DOK-EN

Zapatu gauerdetik aurrera Tonky Blues Band (Madril) zuzenean entzuteko aukera egongo da Ez Dok tabernan.

LIBURU AURKEZPENA

Juan Sanchez Vallejo psikiatra eibartarrak "El estigma del enfermo mental" izenburuko liburua kaleratu berri du eta abenduaren 10ean Donostian aurkeztuko du lana, 18:30ean Ernest Lluch Kultur Etxean.



LASKURAINEN LIBURU BERRIA

Jose Miguel Laskurain eibartarrak bere laugarren liburua, "Vademécum del director de orquesta del siglo XXI" izenburukoa kaleratu du eta interneten, Amazon dendan "best seller" edo salduenen zerrendan dago lana, erosteko moduan.

90. HAMARKADAKO MUSIKA

Zapatuan, 23:00etan "El ritmo del desván" izenburuko saioa hartuko du Ipur sagardotegiak eta, joatera animatzen direnek 90. hamarkadako pop-rock doinuekin gozatzeko aukera izango dute.

basquestay



www.basquestay.com

info@basquestay.com

606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, errentan eman eta diru iturri bilakatu

Oinarrizko argazkilaritza ikastaroa

Arrate Kultur Elkarteak oinarrizko argazkilaritza-ikastaroa antolatu du urtarrilerako (11,13,18, 20, 25 eta 27rako). Klaseak Jose Luis Irigoien Klub Deportiboko argazkilaria emango ditu (gazteleraz), astelehen eta eguaztenetan, 19:30etik 21:30era, Arrate Kultur Elkartearen eta ikastaroaren amaieran Saturrarana irteera egingo da, ikasitakoa praktikan ipintzeko. Antolatzaileek argitu dutenez, "ikas-taroa oinarri-oinarrizkoa izango da eta, beraz, parte hartzeko ez da go ezer jakin beharrik. Apunteak, berriz, paperean edo artxibo digi-talean banatuko dira". Parte-hartzaileek saio guztietara argazki-kamera eta eskuliburua eraman beharko dituzte. Ikastaroaren prezioa 25 eurokoa da Kultuko bazkideentzat eta 30 eurokoa, berriz, bazkide ez direnentzat. Informazio gehiago eskatzeko edo izena emateko Arrate Kultur Elkartera zuzenean jo daiteke (bulego ordutegian), 943202299 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi. Gehienez 20 lagun onartuko dituzte.

ARGAZKILARITZA OINARRIZKO IKASTAROA


Urtarrilak 11, 13, 18, 20, 25, 27

BAZKIDEAK 25€ EZ BAZKIDEAK 30€

Arrate Kultur Elkarteak

Eibar FT-ren kromo-bilduma

Aurreko barixakuan zabaldu zuten "Eibar 75 urte kromo-bilduma" erakusketa Untzagako jubilatutako etxean. Abenduaren 13ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik barixakura bitartean 19:15etik 21:15era (eguztenetan izan ezik) eta asteburu eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Erakusketaren harira, bestalde, 147 kromoko bilduma 36 orrialdetan jasotzen duen albuma erosteko aukera emango dute berriz ere, abenduaren 12an, 10:00etatik 14:00etara Untzagan ipiniko duten mahaietan. Talde armaginarekin 75 urteko historia laburbiltzen duen albumak 25 euro balio du eta salmentan jasotako dirua gaixorik dauden umeei laguntzeko erabiliko dute.



Guraso berbalagunentzat eskulan-tailerra

Datorren barixakuan, abenduak 11, Barixakua Jolasien programaren barruan, gabonetako eskulan-tailerra antolatu du... eta kitto!-k guraso berbalagunentzat eta horien seme-alabentzat. Azaroko saioan txokolatearekin ederto pasa zuten eta oraino gabonetarako apaingarri politak egiten pasatuko dute arratsaldea.




Goruntzekoek Asturiasen abestu dute

Goruntz abesbatzak Asturias aldean eman zuten aurreko abesbatzura, Pola de Lena-n egin zen "III Seronda Coral en Lena" izenekoan parte hartzen. Eibartarrak La Flor de Pola Lena-ko abesbatzak gonbidatuta joan ziren ekitaldira, euren moduan gonbidapena jaso zuten Sestaoko Amata eta Leongo Aguas Blancas abesbatzekin batera. Hitzordurako habanera eta euskal kantuz osatutako errepertorioa prestatu zuten Goruntz abesbatzak eta, abesbatzen arteko elkartrukea osa-

tzeko, datorren urtean La Flor abesbatza bisitan etortzea espero dute eibartarrek.

Eta Asturiasetik bueltan, Goruntzekoek, urtea amaitu baino lehen, hainbat emanaldi eskaintzea aurreikusten dute: abenduaren 13an San Andres elizan Gabon kantak abestuko dituzte 12:00etako mezan eta handik egun gutxira, 20an, 11:00etatik aurrera San Andres zaharren egoitzan kantatuko dute. Argazkian abesbatza Lenan, IX. mendeko Santa Cristina eliza parean ikus dezakezue.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikusteko sarrerak

Aurten ere Pirritx, Porrotx eta Marimotots Eibarrera etorriko dira, Amalur ikuskizun berriarekin, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. eta ikustera joan nahi dutenentzat sarrerak salgai ipini dituzte, 8 eurotan, ohiko saltokietan: Tio Palancas-en (Juan Gisasola) eta Gozokin (Bidebarrieta eta Sostotarren). Ikuskizuna lau saiotan eskainiko dute, Hezkuntza Esparruko antzokian: abenduaren 12an, zapatuan, 16:30ean eta 19:00etan eta abenduaren 13an, domekan, 16:00etan eta 18:30ean.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARKEL, hillaren 8xan sei urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, SAIOA, hillaren 8xan 10 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasa eta muxu bat, Mikel zure lagunaren partez.



Zorionak, JANIRE Lopez, astelehenian zazpi urte egingo dozuzelako. Eibarko famelixaren partez.



Zorionak, TELMO Aizpitarte Martin, gure etxeko erregiak atzo hiru urte egin zittuan-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MAIA, astelehenian sei urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MARTIN Elortza, hillaren 7xan sei urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Helenaren partez.



Zorionak, GAIZKA, hillaren 9xan sei urte beteko dozuz-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, zure arreba ALAITZen partez.



Zorionak, AITOR, domekan urtetxua beteko dozu-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ELENE! Lau urtez inguruak alaitzen. Patxo haundi bat famelixaren eta Laiaren partez.



Zorionak, IBAN, zure 4. urtebetetzian. Famelixa guztiaren eta, batez be, Aratz eta Izeiren partez.

hildakoak

- Jose Luis Mantecon Gonzalez. 81 urte. 2015-XI-24.
- Jose Manuel Garcia Paredero. 89 urte. 2015-XI-27.
- Teresa Eizagirre Gonzalez. 2015-XI-27.
- Rosa Pernia Perez. 87 urte. 2015-XI-28.
- Fernando Arizaga Bustinduy. 82 urte. 2015-XI-29.
- Arrate Sarasua Meabebasterretxea. 50 urte. 2015-XI-30.
- Carmen Maguregi Zabala. 85 urte. 2015-XII-1.

jaiotakoak

- Marie Ndong. 2015-XI-21.
- Mara Ruiz Barroso. 2015-XI-28.

zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

5an: 17.00, 19.45, 22.30

6an: 17.00, 20.00

7an: 20.30

8an: 20.00

"Ocho apellidos catalanes"

Zuzendaria: Emilio M. Lázaro



(2 ARETOAN)

5an: 19.45, 22.30

6an: 20.00

7an: 20.30

8an: 20.00

"Los Juegos del Hambre. 2"

Zuzendaria: Francis Lawrence



(ANTZOKIAN)

5an: 19.30, 22.30

6an: 17.00 (2 Aretoan), 20.00

7an: 20.30

8an: 20.00

"El puente de los espías"

Zuzendaria: Steven Spielberg



(2 ARETOAN)


5an: 17.00

(ANTZOKIAN)

6an: 17.00

"El viaje de Arlo"

Zuzendaria: Peter Sorin



BARIXAKUA 4

GAZTELEKUA

16:30. Disparatea. Indianokuan.

MUSEOA

19:00. Apraiz familiak egindako dohaitza eskertzeko ekitaldia eta erakusketa zabaltzea. Armagintzaren Museoan (Portalean, 5. solairuan).

ANTZERKIA

20:30. "Jobs" (Cía Clownic). 15 euro. Coliseoan.



ZAPATUA 5

ANTZERKIA

17:00. "Zapatila gorridun mutikoa" (Ados Teatroa). 5 euro. Coliseoan.

GAZTELEKUA

17:00. Disparatea. Indianokuan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. Kirola Familian, 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian (beheko kantuan).

UMEENDAKO ZINEA

18:00. "Del revés" (Inside out) umeendako filmaren emanaldia, doan. El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan.


MUSIKA SAIOA

23:00. "El ritmo del desván" 90. hamarkadako pop-rock doinuekin. Ipur sagardotegian.



KONTZERTUA

00:00. Tonky Blues Band (Madril) taldea zuzenean. Ez Dok tabernan.



DOMEKA 6

GAZTELEKUA

17:00. Play/Wii. Indianokuan.

BERTSOLARITZA

17:30. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren 3. finalurrekoa: Arkaitz Oartzabal Agirre "Xamoa", Felix Zubia Olaskoaga, Iñaki Gurrutxaga Zubimendi, Jon Maia Soria, Mikel Artola Izagirre eta Nahikari Gabilondo Mendizabal. Astelena frontoian.



KIROLA FAMILIAN

17:30. Kirola Familian, 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian (beheko kantuan).

EGUAZTENA 9

IKASTEN

11:00. Tertulia-kafea: "Hurrengo 20an zer egingo dugu?". Untzagako jubilatutuek.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 10

IKASTEN

10:00. "Leonardo Da Vinci (I)" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.



KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

erakusketak

✓ Abenduaren 6ra arte

ELISABET EGUREN ETA CRISTINA AZPIRIREN margolanak. Topalekuan.

✓ Abenduaren 12ra arte

“EIBAR 75 URTE KROMO BILDUMA” erakusketa. Untzagako Jubilatu Etxean.
VICENTE IRIONDOREN margo erakusketa. Lobiano Kultur Gunean (ERMUAN).

lehiaketak

✓ Christmas Lehiaketa

Noiz eta non: 3-12 urte bitarteko umeei Gabonetako Christmas bat entregatu beharko dute, DIN A4 formatuan, **abenduak 11 baino lehen** Tarteka Sormen Espazioan (Elgeta Kale, 1). Informazio gehiago: 943249161/699495279.

✓ Tripontziak Lehiaketa

Noiz eta non: abenduaren 1etik 15era, Debabarreneko Klub Gastronomikoko 11 establezimendutan. Eskaintza bereziak menu, pintxo eta egonaldietan. Informazio gehiago: www.debabarrenaturismo.com/eu/gastronomia webgunean.

✓ “Aratosteak Eibarren” Kartel Lehiaketa

Lanak aurkeztea eta informazioa: **Urtarrilaren 12ra arte**, Pegoran.

ikastaroak

✓ Argazkilaritza (oinarrizkoa)

Noiz eta non: Urtarrilak 11, 13, 18, 20, 25 eta 27an (astelehen/eguztenetan), 19:30etik 21:30era, Arrate Kultur Elkartean. Irakaslea: Jose Luis Irigoien.

Izen-ematea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan, 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidean (25 euro bazkideek, 30 euro bazkide ez direnek).

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

S U D O K U A

4		5			9			
	8					6		
				8			9	5
2					3	9	8	
		6				1		
	1	9	4					7
5	3			6				
		1					7	
			2			8		1

9	3	4	7	6	1	2	8	5
6	5	7	2	4	8	1	9	3
8	2	1	3	5	9	6	7	4
1	9	5	8	2	7	4	3	6
7	6	2	4	3	5	8	1	9
4	8	3	1	9	6	7	5	2
5	1	9	6	8	4	3	2	7
3	7	6	9	1	2	5	4	8
2	4	8	5	7	3	9	6	1

AURREKOEN EMAITZA

farmaziak

✓ barixakua 4

EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)

✓ zapatua 5

EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)

✓ domeka 6

EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

✓ astelehena 7

EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

✓ martitzena 8

EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)

✓ eguztena 9

EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)

✓ eguena 10

EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)

✓ barixakua 11

EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI

Elorza (J. Gisasola, 18)

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukalde, bi koma eta ganbara. Tel. 615-759399.

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 697-754174.
– Pisua alokagai Txonta kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 609-175333.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 642-349114.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.
– Martxan dagoen taberna traspasatzen da Isasi kalean. Bezero finkoekin. Prezio interesgarria. Tel. 695-711730.

3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko urtariletik aurrera. Interna. Tel. 631-062022.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Tel. 662-430951.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Interna. Tel. 632-408771.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Interna. Tel. 628-014327.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita gauez eta asteburuetan ere. Tel. 693-232959.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziarik. Tel. 602-172993.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauez eta asteburuetan ere. Orduka. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Baita gauez ere. Tel. 632-771519.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 629-817299.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-425686. Laura.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 652-683273.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Geriatria formazioa eta esperientziarekin. Tel. 686-561811.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Pediatría eta Geriatria formazioarekin. Tel. 608-341064.
– Mutila eskaintzen da sukalde-laguntzaile moduan, dendari jarduteko eta garbiketarako. Tel. 674-724072.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauez ere. Tel. 682-277198.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauez ere. Esperientziarekin. Berehala hasteko moduan. Tel. 633-808931.
– Neska eskaintzen da garbiketarako eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-820508.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Orduka. Baita gauez ere. Tel. 662-012834.
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 639-988593.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 639-988593.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. Externa. Tel. 622-225561.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 646-778839.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 685-768026.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 658-458271.
– Gizonetako eskaintzen da nagusiak zaindu, baserriaz arduratu, sukaldean lagundu eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-074529.
– Gizonetako eskaintzen da banaketak, zama-lanak edo garbiketarako eta urdu-gaztelera-urdu interprete lanak egiteko. Tel. 666-107260.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan jarduteko. Tel. 674-377765.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-354043.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak, etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 943-901752.
– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-074529.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako. Tel. 632-426847.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientziarekin. Tel. 672-442318.
– Neska eskaintzen da soziedadek, pegorak edo bulegoak garbitzeko. Tel. 943-700229 eta 638-421827.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, banantzaile jarduteko, etb. Tel. 632-855281.

4.2. Langile bila

– Ilea-paintzailea behar da. Tel. 619-928881.
– Kamarera/o behar da asteburuetarako Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a. ofertaempleo.bar.eibar@gmail.com
– Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-912181.
– Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-616608.
– Emakumea behar da bikote nagusia zaintzeko asteburuetan. Interna. Tel. 600-711094.
– Sukaldari-laguntzailea behar da jatetxe baterako. Tel. 620-810120.
– Kamarera/o behar da asteburuetan lan egiteko. Tel. 620-810120.
– Ilea-paintzailea behar da barixaku eta zapa-tuetarako. Tel. 943-201853.
– Sukaldaria behar da pintxoak eta kazuelak prestatzeko. Barran esperientzia izatea baloratuko da. extraeibar2015@gmail.com

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Ohe artikulatua salgai (1'05x2 m). Tel. 649-605857.
– Apal metalizatuak salgai, erroberekin. Neuri guztietakoak. Oso merke. Tel. 688-678934.
– Sarrerako altzari klasikoak salgai, butakoia-ekin. Kalidade onekoa, egoera oso onean. Tel. 656-733572.
– PSP fundarekin eta Play Station 2 (Slim) salgai. Ia erabil gabe. Jolasak opari. Tel. 671-846270.

6.2. Eman

– Mendiko bizikleta oparitzen dut. Tel. 666-444074.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguazten goizean (07:30 inguruan) motxila urdina galdu nuen Untzagako Jubilatutako Etxeko arkupe inguruan. Eskolako materiala, betaurrekoak eta dokumentazioa zuen karteratxoa zegoen barruan. Tel. 616-480865.
– Urrezko pultsera galdu genuen aurreko asteburuan. Iraia jartzen du bertan. Tel. 646-280237.
– Orain dela 15 egun umearen motorra ahaztu nuen T. Etxebarrian. Urdin eta hori kolorekoa, Hugo jartzen du. Tel. 677-309013.

6.4. Bestelakoak

– Elkarte gastronomiko bateko kide izan nahiko nuke. Tel. 635-206864.
– Elkarte gastronomiko bateko kidea izatea nahiko nuke eta aukera desberdinak ikustea. Tel. 667-516350.

Hyundai Tucson Berria

Aldatzea jarrera bat da.



#changeisgood

Aldaketa gure bizitzan zatia da. Sentsazio berriak aurkitzea eta une hunkigarriak bizitzea ahalbidetzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinu eta berrikuntza teknologikoek gidaritzaz gozatzeko zure era guztiz aldatzea ekarriko dute.

Esperimentatu aldaketaren indarra www.hyundai.es helbidean

Tucson Berria **18.900€** tik aurrera



OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLZKOARAKO

ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 **943 74 14 80**



Hyundai Tucson Gama
CO₂ Emisioak (gr/km): 119-175
Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,6-7,5

Tucson 1.6 GDI (131CV) 4x2 BD ESSENCE-rako gomendatutako prezioa, Penintsulan eta Balearretan (18.900€). BEZ, garrailoa, matrikulaio-zerga, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza, Hyundai Solución Plana eta Gobernuaren PIVE Plana barne (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeari lotuta). Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxienezko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziak. 2015/12/31ra arte balioa du eskaintza honek. Erakutsitako modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziatzaileari lotuta. Begiratu eskaintza eta mantenimenduaren baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.

BERRITU ZURE GALDARA

BRAVA SLIM HE **sime** KONDENTSazio GALDARA TRINKOENA

30kW
POTENTZIA
HANDIA

Konfort
handia.
Ur beroa
temperatura
iraunkorrean

16,4L/MIN
KALITATE HANDIA
A.C.S.-an

Dutxa bat
eta txorrota
aldi berean
erabiltzeko
behar dena
baino gehiago

25cm
HONDORAINO

Neurri
txikikoak

GARANTIA
6 URTE
OSOA

EGUNERO
1,28€ tik
AURRERA
BEZ ETA MUNTATIA
BARNE



➤ SEGURTASUN HANDIENA
KONBUSTIO BIKAINERAKO

➤ INSTALAZIO ETA
ERABILERA ERRAZA



ETA KEZKAK KANPORA

*SIME prebentzio-mantentze
kontratua sinatzeari lotuta

BEROGAILU INSTALAZIORAKO NEGUKO KANPAINA

INSTALAZIO ADIBIDEA:

- Sime Brava Slim Galdara
- 018 eta 015eko kobrezko hodian instalazioa
60 metro linealeraino
- Aluminiozko erradiadore
60 elementu
- Giro termostatoa

EGUNERO
3,34€ tik
AURRERA

fontanería iturgintza
lagunak
errekatxu



Baimendutako Instalatzailea

Kalefakzioa eta Gasaren Instalazioen Espezialistak
Sukaldeak eta Komunak



Txaltxa Zelai, 1
lerreformak@gmail.com



Lagunak
erreformak

943 70 26 12
625 18 51 22



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**